



TXOSTENA2021

 **alboan**
ONG · JESUITA · FUNDAZIOA

MUNDUA BIDEZKOAGOA SINETSI ETA SORTU

Dakizunez, Euskadiko eta Nafarroako Nazioarteko Lankidetzako GKE jesuita gara. Justizia globala sustatuko duen herritartasuna eraikitzearen alde lan egiten dugu, ekologia, genero-berdintasuna, herritarren parte-hartzea, hezkuntza eraldatzailea, migrazioak eta babeslekua ardatz hartuta. 2021ean 25 urte bete genituen zurekin batera. Bazterkeria sortzen duten egiturak tokian-tokian eta maila globalean eraldatzeko eta harreman sozial eta ekonomiko bidezkoak eta inklusiboak sustatzeko asmoa dugu oraindik ere.

2021ean, azkenik, aurrez aurreko topaketa eta ekimen ugari berreskuratu genituen. Hezkuntza-

komunitateekin topaketak, Hezkidetzari buruzko II. Jardunaldiak egin genituela. Kolonbian, Perun edo Erdialdeko Amerikan eskubideak defendatzen dituzten eta gizarte-ekimen produktiboak sustatzen dituzten emakumeen bisitak. Elkartasunez eta konpromisoz beteriko topaketak Gazte Sarea-rekin, bolondresen taldeekin eta talde laguntzaileekin, eta Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako eta Nafarroako bazkideekin.

Gizarte-zubi horiek gabe, ezin izango genioke 2021eko jarduerari eutsi: 178 lankidetzaproiektu garatu eta 90 erakunde lagundu genituen 23



herrialdetan; 450.000 pertsonak zuzenean beren egoera pertsonala eta komunitarioa hobetu zuten, eta 3.000.000 baino gehiago, zeharka; 160 ikastetxe eta 8.500 hezitzailek baino gehiagok gure hezkuntza-proposamenak erabili eta hobetu zituzten; Gure bidezko kausekin bat egin zuten 30 gazte taldek eta 45.000 ziberaktibistak gure sare sozialetan.

Halaber, 2021ean aurrera egin dugu Entreculturas erakunde jesuitarekin dugun aliantzan. Erakunde horrekin partekatu ditugu “COVID Larrialdia” Indian, eta “Ospitalitate-bideak” kanpainak. Ekimen horiek sentsibilizatzeko eta eragin publikoa izateko

gaitasuna indartu zuten, eta gazteekin dugun lotura hobetu zuten aldaketa-prozesu desberdinetan. Hori guztia, bidezko beste etapa batean zurekin batera aurrera egin jarraitzeko. 25 urte baino gehiago dira, sortzen eta sinesten. Eta jarraituko dugu. Eskerrik asko!

Martín Iriberry Villabona SJ, Alboan-eko Zuzendaria.

MUGIARAZTEN GAITUZTEN 5 KAUSAK



1. Kalitatezko hezkuntza

Pandemiaren ondorioek bete-betean eragin zieten komunitate ahulenei. Herrialde askotan milioika hurrek ezin izan zuten eskolara itzuli ere egin. Erronka handia da **Fe y Alegría** gure aliatuaren hezitzaileentzat, gaitasun teknologiko berriak abiarazi behar izan baitzituzten, hala nola irrati komunitarioak; funtsezko tresna da Interneterako edo gailu elektronikoetarako sarbidea mugatua eta hezkuntza-aukera-berdintasunerako mugatzailea den lekuetan.

Landa-eremuetan, Amazonian edo Indiako Gujerat estatuan adibidez, ahaleginak egin ziren hezkuntza-zikloak amaitu ahal izateko estrategiak bilatzeko, **aukera berriak** ireki ahal izateko.

Martxoan, Alboan, Entreculturas, InteRed eta Oxfam Intermon erakundeetako sareetako irakasleekin egin genuen **Hezkuntza Eraldatzailearen eta Hiritartasun Globalaren aldeko Mugimenduaren** III. Topaketa, eta Alboan buru duen hitzarmen horren esparruan Santiagoko Unibertsitateari eskatutako ikerketa argitaratu zen.

Garapen Iraunkorreko Helburuen (GIH) **4.7 Mugimenduaren** topaketa egin genuen, unibertsitateetako, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako administrazio publikoetako, ikastetxeetako eta beste GKE batzuetako dozenaka lagunek parte hartu zutela.

Halaber, Espainiako Jesusen Lagundiaren ikastetxeen sarea den **Educsirekin** harremana eta lan-proposamenak indartu ziren.





2. Giza mugikortasuna

Indarkeriek munduko milioika pertsonak etxea utzi behar izatea eragiten dute. **Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuaren**, **Migratzaileentzako Jesuiten Zerbitzuaren** eta beste tokiko erakunde batzuen eskutik, desplazatuei, errefuxiatuei eta migratzaileei laguntzen diegu, bereziki emakumeei, testuinguru oso desberdinetan, hala nola Erdialdeko Amerikan-Mexikon, Venezuelan-Kolonbian, Kongo EDn, Hegoaldeko Mugan edo Tamil Nadun, segurtasun-bermeak eta etorkizun duinerako aukerak izan ditzaten.


Nabarmentzekoa da **Emakumeok Martxan Afrikan** ekimena hainbat proiektutan hedatu izana, 15 herrialdeetan 33.000 emakume baino gehiago laguntzen baitugu.

Errealitate horretaz gehiago jabetzeko eta herritartasun inklusiboa eta harrerakoa sortzeko, jarraipena ematen diogu **“Mugetatik haratago”** hezkuntza-proposamenari. Nafarroan 5. ediziora iritsi gara 22 ikastetxek, 150 hezitzailek eta 2.750 ikaslek parte hartuta. Emakumeen eskubideen astea sustatu genuen Iruñean eta Tuteran, eskola-jarduerekin eta sentsibilizazio-jarduerekin. Nafarroako Parlamentuan ere izan ginen 5 ikastetxetako ikasleekin, eta beste sentsibilizazio-jarduera batzuk egin genituen, **“Migratu: bizitza duina izateko eskubidea”** lelopean, Herrera Lurra izan nahi dugulako.

Ildo beretik doa **Change** ekimena, Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua-Europa buru duena. Bigarren hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago, eta Alboanek Europar Batasuneko beste zortzi erakunderekin batera parte hartzen du. Orain arte 125 ikastetxek parte hartu dute proiektuan.

Gainera, Loiolako Plataformako eta Espainiako Probintziako sektore sozialeko beste obra batzuekin artikulatu ginen, **Hospitalitatearen** ildoan, non Migragesto, mobilizazio- eta komunikazio-proposamena garatzen dugun.





3. Gizarte- eta ingurumen-justizia

Beren lurraldea defendatzen duten **erakunde eta pertsonentzako laguntza** indartu genuen, beren bizimodua suntsitzen duen erauzketa-industriaren aurrean. Giza eskubideen defendatzaileak, eraso larriak jasaten ari diren lurraren defendatzaileak. Amazonian, Aintzira Handietako eskualdean eta beste agertoki batzuetan.

Horri gehitu behar zaio Europan egiten dugun hezkuntza-, komunikazio- eta eragin-dimentsioa. Horretarako, ondorengoekin dihardugu: **Justice in Mining** sarea, lau kontinentetako hainbat herrialdeetako kasuak biltzen dituen; **Gatazkarik Gabeko Teknologia (GGT)** kanpaina enblematikoa; eta “diligencia debida” deritzonari buruzko Europa legeria bat aurrera eramateko sarea.

Helburua da herritar kritikoak sustatzea, gatazken eta ekoizpen- eta kontsumo-modu globalen artean dauden elkarrekiko mendekotasunak identifikatzeko gai direnak, eta ingurumenaren eta giza eskubideen arloko arau-esparruak indartzen saiatzea. Honako hauen eskutik goaz, besteak beste: **Xavier Sarea** (Nazioarteko Lankidetzako erakunde jesuiten aliantza), **Ecojesuit** (erakunde jesuiten ekologia-sare globala), **CIDSE** (justizia sozialaren alde borrokatzen duten erakunde katolikoen aliantza), **Enpresa Arduradunen Plataforma**, eta, jakina, **Entreculturas** gure erakunde ahizpa.

Garapen Alternatibo Ekonomikoaren esparruan, 2021ean **Herritarren Enpresaren** proposamena zabaldu genuen **Deustuko Unibertsitate**-ko Etika Aplikatutako Zentroarekin eta **Ekonomia Alternatiboa eta Solidaridarioren Sarea** REAS Euskadirekin batera. Enpresa-berrikuntzako ekitaldi bat eta mundua

hobetzeko aukera bat, jasangarriagoa, bidezkoagoa eta gizatiarragoa izan dadin.

COMPORTE ikaskuntza- eta ekintza-komunitatea da, eta alternatiba ekonomiko-produktiboak sustatzen ditu Latinoamerikako 11 herrialdetan. Komunitate horren partaide gisa Alboan-etik hainbat mugarri lortzen lagundu genuen:

- **“La economía de Clara”** kanpaina, emakumeek ekonomia gizatiarrago baten eraikuntzan duten zeregina aztertzen duena.
- 11 gizarte-zentrok laguntzen dituzten 20 esperientzien egoerari buruzko oinarritzko lerroa eraikitzea.
- Ekimen produktiboetarako Gizarte eta Ingurumen Auditoretzako Sistema (GIAS) diseinatzea.
- Genero-ardatzean aurrera egitea, autodiagnostikorako gida bat diseinatuta, eta ekimenak genero-ikuspegitik hobetzeko ekintzak identifikatuta.

Gainera, **Bidezko Merkataritzaren** aldeko apustu sendoa egiten jarraitzen dugu, Bilboko Kidendan, Gasteizko Bide Bidean eta Iruñea eta Donostiako hainbat erakundeekin elkarlanean. Urtean zehar Alboan-ek presentzia publikoko hainbat jardueratan parte hartu zuen.

Eta **Deustuko Unibertsitatea**arekin indarrak batu genituen **“URA 20-21”** izeneko lankidetzaguneari sortzeko, eta, horrela, 6. Garapen Jasangarriaren Helburuari (2030a baino lehen pertsona guztientzako ura eta saneamendua) eusteko.





4. Parte-hartzea eta herritartasuna

Latinoamerikan, Afrikan eta Indian parte-hartze prozesuak bultzatzen jarraitzen dugu, talde antolatuen proposamenak espazio publikoetara igo daitezen. Egungo gobernantza-krisien aurrean, herritarrek politika bidezkoagoak eta kolektibo ahulenen egoerari helduko diotenak eraikitzen laguntzea nahi dugu.

2021ean gure **boluntarioria**-politika berria zabaltu genuen, Entreculturas elkartearekin batera. Gure asmoa da bi erakundeentzako boluntarioria-eredu bat lerrokatzea eta elkarrekin eraikitzea.

2021ean **94 bolondres eta laguntzailek** Alboan- en lana sustatu zuten. Prestakuntzak eta urteroko topaketa egin genituen, gizarte- eta ingurumen-justiziaren eta giza mugikortasunaren bidezko kausen barruan.

Nazioarteko Boluntarioriari dagokionez, ezin izan ziren burutu Praktika Profesional Solidarioen Programa eta Unibertsitateko kontratupeko langileentzako Esperientziak, bidaia-murrizketen ondorioz. Hala ere, Elkartopatzeko eta VOLPA programak prestatzen eta laguntzen jarraitzen genuen.

Pedro Arrupe Nazioarteko Boluntarioriak (VOLPA)

30 urte bete zituen, eta hainbat on-line ekitaldirekin ospatu genuen, parte-hartzaileekin, laguntzaileekin eta programatik igaro diren erakundeekin. Urte hauetan 1.000 pertsona baino gehiagok hartu dute parte.

2021ean VOLPA programak 4 pertsona izan zituen Kolonbian, Guatemalan, Hondurasen eta Tanzanian.

Eta beste 8 pertsonak prestakuntza- eta laguntza-prozesuari ekin zioten.

Bestalde, 11 pertsonak aritu ziren **Elkar Topatzen** iraupen laburreko boluntarioen programa, Melillan 4 asteko egonaldia barne.

Alboan-eko **Gazte Sareak** desplazatutako pertsonentzako abegi oneko esperientzia eredugarriak elkartrukatu eta zabaltu zituen, **Latinoamerikako eta Karibeko Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuarekin (JRS-LAC), Loiolaetxearekin eta Ellacuria Fundazioarekin** batera. Urteroko topaketan zortzi harrera-esperientzia aurkeztu ziren: 4 Latinoamerikakoak (Kolonbia, Ekuador eta Venezuela) eta 4 Euskal Herrikoak.

Ikasturtean zehar **30 taldek** parte hartu zuten Gazte Sarearen proposamenetan.

GGKEen Estatuko Koordinakundean, Euskadiko Koordinakundean eta Nafarroako Koordinakundean parte hartzen jarraitu genuen, zuzendaritza- eta lan-eremuetan, hala nola generoan, Gizarte Eradalketarako Hezkuntzan eta intzidentzian.

Eta, azkenik, **ibiltari** ekimen solidarioaren bitartez, herritarrak ibiltzera gonbidatu genituen, ura zaindu beharraz kontzientziazteko eta pertsona eta komunitate kalteberei ura eskuratzeko aukera defendatzeko.





5. Genero-berdintasuna

Bereziki **emakumeei zuzendutako proiektuen alde egiten dugun apustua** indartu genuen, desberdintasun-egoera dela eta. 50 egitasmo jarri genituen martxan 12 herrialdeetan 64.000 emakume lagundu nahian. Era berean, gure aliatuei laguntzen diegu **barne-prozesuen garapenean**, analisi eta estrategia hobeak izan ditzaten desberdintasun-arrakalak murrizteko bidean.

Genero-ikuspegia txertatu genuen **COMPARTE komunitatearen** garapen alternatiboaren ezaugarrietan.

Ikastetxeei laguntzen diegu **hezkidetza-prozesuetan**: 20 ikastetxetako irakasleak hezkidetzan trebatu ziren, proposamenak trukatu zituzten eta baliabideak partekatu zituzten. Hezkuntza-materialak sortu ziren, eta Alboaneko Hezkidetzari buruzko II. Jardunaldiak egin genituen, 110 pertsonak parte hartu zutelarik.

Gainera, **hezkuntza ez-formalaren** esparruan, hezkidetzako praktika-komunitate bat osatzeko lehen urratsak eman ziren, hezkuntza-aisialdiko eragileak inplikatu dituen; genero-estereotipoei, zaintzei eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko prestakuntza eman genien gazte-taldeei, eta 450 gaztek baino gehiagok parte hartu zuten patriarkatuari eta ekofeminismoari buruzko Inequality Webquest II erronkan.



Gainera...

Hainbat kanpaina egin genituen babesa lortzeko:

- **COVID 19 larrialdia Indian**, Entreculturas erakundearekin batera;
- **Alboan-en “jatorriak”** gure 25. urteurrena dela eta. Gure hastapenak eta gure misioaren jatorria gogoratu genituen, eta modu eguneratua proiektatu genuen;
- COVID-19ak eragindako **Hezkuntza-larrialdia**, Fe y Alegría-ren lana babesteko;
- **Gujerateko emakume Dalit eta Adivasiekiko** Gabonetako kanpaina solidarioa, “Pandemiaren aurreko elkartasun sareak”.







TXOSTEN EKONOMIKOA 2021

Ekarpen bilakaera 2019-2021: 2021: 10.034.167 € | 2020: 9.987.687 € | 2019: 9.945.478 €


Ekarpenen jatorria




Gastuak arloen arabera



Gastuak sektoreen arabera



Gastuak eremu geografikoen arabera



Gure kontuek **kanpo-ikuskaritzak** izan dituzte SLP enpresaren eskutik. 2020an GGKEen Koordinakundeak sustatutako “Gardentasunaren eta gobernu onaren zigilua” berritu genuen, 2023ra arte indarrean egongo dena. Tresna horrek gure sektorearen berezitasunak hartzen ditu aintzat, jarduerak eta funtzionamendua aztertzeko, eta ikuskaritza-enpresa independenteek egiten dute.

Alboan misioaren **iraunkortasuna** partikularren kolaborazio ekonomikoen mende dago neurri handi batean. Aurren, 5.233 lankidetzari esker, ehunka mila pertsonaren egoera pertsonala eta komunitarioa hobea da. Eskerrik asko posible egiteagatik! Lagundu nahi baduzu, urteko ekarpena edo dohaintza egin ahal duzu. 944 151 135 telefonora dei diezagukezu.

- Fiare ES92 1550 0001 21 0000630723
- Kutxabank ES06 2095 0000 70 9101227989

- BBVA ES52 0182 1290 35 0010853001
- Laboral Kutxa ES39 3035 0083 27 0830064469



www.alboan.org

BILBAO - BILBO

Padre Lojendio, 2- 2º | 48008 - Bilbao - Bilbo
Teléfono: 944 151 135

PAMPLONA - IRUÑEA

Avenida Barañain, 2 | 31011 - Pamplona - Iruñea
Teléfono: 948 231 302

DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN

Andia, 3 | 20004 - Donostia - San Sebastián
Teléfono: 943 275 173

VITORIA - GASTEIZ

Monseñor Estenaga, 1 | 01002 - Vitoria - Gasteiz
Teléfono: 945 202 676

alboan@alboan.org



facebook.com/alboan



[@ALBOANongd](https://twitter.com/ALBOANongd)



[@alboanong](https://www.instagram.com/alboanong)



www.alboan.tv

Ondorengoak eskertuko nahi ditugu argazkiak uzteagatik:
Fe y Alegría-Guatemala; Red Jesuita con Migrantes-Erdialdeko
Amerika, Laura Lora, Iñigo Icaza, Elkar Topatzen 2021,
Depositphotos, eta iStock.

